

GOIZEKO GELAREN FUNTZIONAMENDUA ARAUTEGIA

DEFINIZIOA

“Goizeko Gela” zerbitzua Umandi Guraso Elkartearen eskutik antolaturiko eta eskolako familiei eskainitako zerbitzua da, famili-kontziliazioa bultzatzeko helburu duena.

HELBURUA

Familien antolamenduari mesede egitea, beti ere, umeen erritmo indibidualak errespetatuz eta egunaren hasiera harmoniatsua eta lasaia izan dadilari lehentasuna emanez. Horretarako, harrera, gosari eta arroparen edota fardelen aldaketa uneak asko zaintzen ditugu, beharrezkoak diren mimoak eskainiz.

EGUTEGIA

Goizeko Gela zerbitzua eskola egutegiaren lan egun guztietan egongo da zabalik. 2 eta 3 urteko umeak euren gela barruko egokitzapen aldia amaitutakoan hasiko dira Goizeko Gelaren zerbitzuan, eta ez lehenago.

ORDUTEGIA

7:55etatik ume bakoitzari dagokion eskola ordutegia hasi bitarteko tartea. Goizeko Gela zerbitzuaren sarrera malgua da, familien beharren arabera sartuko dira umeak aldika.

Sarrera patio handiko portxearen atetik egingo da, bertako txirrinari deituz. Zerbitzuaren umeen zaintzaileak bertaraino gerturatuko dira haur heldu berriak jasotzeko.

FUNTZIONAMENDUA

- ✓ Goizeko Gela Guraso Elkarteak antolatuko du, baita pertsona zaintzailearen kontratazioaz arduratuko da ere.
- ✓ Zerbitzuaren zenbaki edo plaza kopurua Eskola Kontseiluak (OOGk) baimendutako espazio erabilgarrien arabera izango da.
- ✓ Gutxienezko bi pertsona arduradun (umeen zaintzaile) izango dira zerbitzuan, umeak bakarrik gera ez daitezen ziurtatzeko helburuarekin. Zaintzaile bakoitzeko 18 umeak da oinarriko ratioa, zifra hauetatik gora, beste zaintzaile baten beharra legokelarik, beste 10 ume gehiagoren ardura hartzeko. Hau da, 18 ume edo gutxiago izanda, bi zaintzaile egongo dira; 19 eta 28 ume bitartean hiru; 29 eta 38 ume bitartean lau; eta abar. Zerbitzuaren noizbehinkako erabilera, unean uneko ratioak onartzen badu egingo da soilik.
- ✓ Maiatzean zehar, datorren ikasturteari begira, zerbitzuan izen emateko epea zabalduko da;

aurreko ikasturtean zerbitzuaren erabiltzaileak izan diren familiei lehentasuna emango zaielarik. Era berean, zerbitzuan egondako umeen neba-arrebek ere lehentasuna izango dute. Plazak gainditzen dituzten izen emate berririk egotekotan (espazioak ahalbidetzen duen heinean), bozketaren bidez beteko dira hauek. Gainerako kupoarekin itxarotzerrenda gauzatuko da.

ARAUAK

- 1.Familia bakoitzak datuen-fitxa bete beharko du umeari buruzko informazioarekin, baita familiaren kontaktuzko telefonoekin, umearen jantokiko zein eskolaz kanpoko ekintzetako parte hartzearekin, zein Goizeko Gelako zaintzaileek ezagutu beharreko beste edozein informazioarekin.
- 2.Gainontzekoekiko arriskua suposatzen duten gaixotasunik duten haurrak ezingo dira Goizeko Gelara eraman, ikastolara eraman ezin daitezkeen bezala.
- 3.Euren seme-alabak Goizeko Gelara eramaten dituzten gurasoek beharrezkoa den edozertan laguntza emango dute zerbitzuaren funtzionamenduaren mesedean.
- 4.Arautegiaren hausteak eta zerbitzuaren zaintzaileekiko zein gainontzeko haurrekiko errespetu faltak akatsa suposatuko du, haren larritasun neurria eta zigorra Guraso Elkartearen Zuzendaritza Batzordeak erabakiko duelarik, familiarekin aldeztu aurretiko elkarrizketa pertsonala egin ondoren.
5. Era berean, Guraso Elkarteak zenbait umeen parte hartzea debekatu dezake, egoerak hala eskatzen badu. Hala nola, jarrera arazoak, ordainketa huts egiteak, umeek eskolan ematen duten denbora onartutakoaren gainetik egotea (8 ordu 2 urteko haurrentzat eta 8 ordu eta erdi gainontzekoentzat), eta abar.

REGLAMENTO DE FUNCIONAMIENTO DEL SERVICIO DE AULA DE MADRUGADORES

DEFINICIÓN

El servicio de “Aula de Madrugadores” es un servicio organizado por la Asociación de Madres y Padres “Umandi Guraso Elkartea”, que se ofrece a las familias del centro para favorecer la conciliación familiar.

OBJETIVO

Facilitar la organización de las familias, pero dando prioridad a que las criaturas tengan un comienzo de día armonioso, tranquilo y respetando el ritmo individual de cada uno. Para conseguir eso cuidamos mucho el momento de la acogida, desayuno, cambio de ropa, mimos, ...

CALENDARIO

El servicio de Aula de Madrugadores funcionará todos los días lectivos del calendario escolar. Los niños y las niñas de 2 y 3 años se incorporarán al servicio una vez concluido el periodo de adaptación.

HORARIO

De 7:55 hasta la hora de comenzar las clases correspondiente a cada criatura. La entrada será libre, los niños y niñas se irán incorporando paulatinamente según las necesidades de las familias.

El acceso se hará por la puerta del porche del patio grande, donde a través del timbre se avisará a las personas cuidadoras que acudirán a recoger a la criatura para unirse al grupo.

FUNCIONAMIENTO

- ✓ El Aula de Madrugadores será organizada por la AMPA, quien se encarga de la contratación de los monitores/monitoras.
- ✓ El número de plazas estará en función de los espacios disponibles que el Consejo Escolar autorice.
- ✓ El número de monitores o monitoras que atenderán estos espacios será de un mínimo de dos, de modo que los niños y niñas nunca se queden solos.
- ✓ El ratio inicial se fija en 18 niños o niñas para dos monitores o monitoras, a partir de este número se añadiría otro monitor o monitora para atender hasta 10 nuevas inscripciones. Es decir, hasta 18 personas dos monitores o monitoras, de 19 a 28

personas tres monitores o monitoras, 29 a 38 personas cuatro monitores o monitoras, etc.

- ✓ Solo se admitirá el uso ocasional en el caso de que el ratio lo permita.
- ✓ Durante el mes de Mayo se abrirá el plazo de inscripción para el curso siguiente, teniendo preferencia aquellas familias que ya hayan sido usuarias del servicio. Los niños y niñas con hermanos o hermanas apuntados en la actividad en el curso anterior tendrán prioridad a la hora de apuntarse. En el caso de que haya más solicitudes de nueva incorporación que plazas disponibles (según el espacio), estas se cubrirán por sorteo. Con el cupo excedente se elaborará la correspondiente lista de espera.

NORMAS

1. Cada familia debe cumplimentar una ficha con los datos del alumnx, especificando si hace uso del servicio de comedor y de las actividades extraescolares de la tarde, teléfonos de contacto de la familia y, en su caso, observaciones a tener en cuenta por las personas cuidadoras. Una vez iniciado el curso, estos entregarán la ficha a las familias de quienes acudan por primera vez al aula de custodia.
2. No se deben llevar al aula de madrugadores, así como a la ikastola, a aquellos niños o niñas que padezcan enfermedades que puedan suponer un riesgo para los demás.
3. Los padres o madres que tengan a sus hijos e hijas en el Aula de Madrugadores deberán colaborar en todo lo necesario para el correcto funcionamiento de la misma.
4. El incumplimiento de las normas y la falta de respeto al resto de niños/as o a las personas cuidadoras podrá suponer falta, cuya gravedad determinará y sancionará la Junta Directiva de la AMPA, previo diálogo personal con la familia del alumno o alumna.
5. De la misma manera, la AMPA podrá vetar la participación en esta actividad a los alumnos o alumnas que estime oportuno, cuando concurren circunstancias que así lo justifiquen. Como por ejemplo, problemas de actitud, falta de pago, permanecer en el centro más horas de las estipuladas (8 para los niños de 2 años y 8 horas y media para los demás), etc.